

Gazteak, euskara eta aisialdia Ipar Euskal Herrian

Erramun Baxok eta Jean-Baptiste Coyos

Aurkezten dugun ikerketa bidean da. Sarreran, aisialdiaren definizio bat: "*Lanik edo zereginik gabeko tartea, nor bere gogora ematen duena*" (Elhuyar 2000). Gure ikerketaren iturri nagusiak dira azken hamarkadan egin diren inkestak eta txostenak: gaztetxoak (1999), nortasuna (2005), hizkuntza (2006), kultura (2008), Euskararen Erakunde Publikoan aurkeztu diren proiektu dosierak eta bilanak, Euskal Kultur Erakundeko ekintzen bildumak.

Zein da Ipar Euskal Herriko gazteriaren argazkia? Oraindik gutiengoak (%26) mintzo du euskara edo gutienez ulertzen, baina gehiengoak (%65) bere burua euskalduntzat dauka. Euskal hedabideetan telebista ikusleak eta irrati entzuleak euskara dakitenak baino askoz gehiago dira (%47, %38). Kultura definitzerakoan euskara lehen mailan ezartzen dute, halere, beren jarduera nagusian, zineman, euskararen presentzia urria da (%2). Kirolak maite dituzte (errugbia, futbola eta pilota) ikusle bezala; ibilaldiak, txirrindula eta mendia praktika bezala.

Aisiaren eremuak aztertzeko, 2009ko emaitzak hartu ditugu: egonaldiak, ibilaldiak; prentsa, entzun-ikusgaiak eta IKT; argitalpena, irakurketa; musika, dantza, kantua; antzerkia, bertsolaritza; kirolak, zirkua; bestak, festibalak; zinema; arte ederrak, ondarea. Alor bakoitz, gazteen joerak, oraingo egoera eta geroko egitasmoak zehaztuko dira.

Zein da hizkuntza politika aisialdiaren eremuan?

Euskararen erakunde publikoaren Hizkuntza politika proiektuan, aisialdia erronka nagusi bat da: *Aisialdi uneetan euskararen erabilpena sustatuz, hizkuntza eta gozamina uztartu*. Orain arte helburu hau ez da biziki landu. 2011-2016 ibilbide orrian agertzen dira *lau langune berri*: aisialdi egituretan euskararen eskaintza emendatzea eragileen eta ihardueren bitartez; hezkuntza kulturala eta artistikoa; kirol hezkuntza; aisialdi zerbitzuak. Euskal Kultur Erakundeak bere helburuetan ez dauka euskarazko aisialdia, baina daramatzen iharduera asko alor honetan baliabide izan daitezke: hezkuntza artistikoa, ikusgarrien hedapena (antzerki, dantza, musika), festibalak, argitalpena eta tresna numerikoak.

Bururatzean ondorioen araberako gomendioak eginen ditugu, agertu diren indarguneak sustatzeko eta ahulguneak sostengatzeko. Adibidez "gazteria, elkarteak eta kirola" eskuduntzan daukaten tokiko elkargoek beren gain har dezatela euskarari tokia ematea, hizkuntza teknikarien bitartez, besta batzordeetan; lagun ditzatela aisialdian diharduten eragileak eta elkarteak, Uda Leku eta beste.